

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2011ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

HKEEren iritzira, Unibertsitateak zuzentasunez bete du bertako ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia; salbuespen dira, ordea, langileei eta administrazio kontratazioari buruzko hainbat jokamolde.

Langileriari dagokionez, osagarri eta ordainsarien berdintze kontzeptuan 1,6 milioi euro ordaindu dira, unibertsitateko irakasleriaren ordainsariei buruzko indarreko legerian aurreikusi gabe daudenak;

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak zenbaitetan urratu egin dituela administrazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: obra kontratu batean aldaketa bat izapidetu ez izana; hornidura kontratu bat kontratu misto bezala izapidetu izana, arauketa harmonizatuari meneratu gabe, hiru kontratutan fakturatutako gastuek pleguetako balioespenak ehuneko esanguratsuetan gainditzea; bi kontratutan xedea bidegabe zatikatu izana, prozedura irekiari edo publikotasundun negoziatuari dagozkion betekizunak saihestuz; eta kontratuak indarrean izanagatik, dagozkion prestazioei dagokienez, hainbat gastu egin izana.

EHUren Kontuei dagokienez, Epaitegiak uste du horiek egoki erakusten dutela aurrekontuko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondotik adierazitako salbuespen hauekin:

EHUk ez dauka konpromiso-kredituen egoerarik

-EHUk ez ditu berrikusi Berriazko Geldikina osatzen duten aurrekontuko aplikazio ugariak eta gainera, ikerkuntza kontratuen amaieraren gaineko kontrola eskasa izan da; honek guztiak eragotzi egiten du horren zuzentasunaren gaineko ondoriorik ateratzea.

-Diruzaintza Geldikina eta Berariazko Geldikina , hurrenez hurren, 5,2 eta 7,4 milioi euroan murrizten duten doiketak egin dira eta Gastu Orokorretarako Geldikina, 2,1 milioi euroan gehitu dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate eta administrazioko kontratazioaren alorretan.

Finantza analisiak 2011ko ekitaldiaren Emaitza Arruntak 2010ekoarekiko igoaldia izan duela erakutsi digu eta hori gastu arruntak behera egin izanak euskarritzen du, nagusiki, Itzarri BGA Eren 2004tik 2009ra bitarteko ekitaldietako ekarpenak 2010ean erregistratu izanaren ondorioz. Bestetik, amaitzeko esan daiteke, agerikoa dela aurreko urteetan bezalaxe Unibertsitateak kanpoko finantzaketarekiko duen mendekotasuna; berebat, azpimarratzekoa da gero eta pisu handiagoa dutela transferentzia eta diru-laguntzek eragindako sarrerek, nahiz azken 5 urte hauetan lehenengo aldiz zorpetzearen goranzko joera alderantzikatu den, 2011n zorra nabarmen murriztuz.

Txostenak bilakaera akademiko eta irakaskuntzakoari buruzko atala besarkatzen du; bertan lurralde historiko bakoitzeko ikastetxe eta titulazio kopurua xehetasunez jasotzen da; baita, 2006-2007 eta 2011-2012 ikasturte bitartean matrikulatutako ikasle berrien azterketa konparatibo bat ere.